

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URKABUSTAIZKO UDALA

2021erako egutegi fiskalaren onarpena

2021erako egutegi fiskala eta udal honek kudeatzen dituen aldizkako zergak ordaintzeko epea onartzeko beharra ikusirik, honako hau ebatzen dut:

Lehenengoa. Taldeko eta aldizkako jakinarazpenen egutegi fiskala eta borondatezko ordainketa-aldia onartzea, honela:

ZERGA	BORONDATEZKO EPEA	EPEA
Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen Zerga (TMIZ)	2021eko apirilaren 1etik maiatzaren 31ra (biak barne)	2021eko ekainaren 1etik aurrera
Landa- eta hiri-ondasun higiezinaren gaineko zerga (OHZ) Izaera Bereziko Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga	2021eko uztailaren 1etik abuztuaren 31ra (biak barne) *Udalak ordainketa zatikatua baimentzen duen kasuetan, lehenengo ordainketa uztailaren 31n egingo da, eta bigarren ordainketa azaroaren 30ean egingo da	2021eko irailaren 1etik aurrera Abuztuaren 1ean eta abenduaren 1ean, hurrenez hurren
Hiri hondakin solidoak jasotzeko zerbitzuaren tasa (Zaborrak)	2021eko uztailaren 1etik abuztuaren 31ra (biak barne)	2021eko irailaren 1etik aurrera
Auto-taxi lizentziaren tasa	2021eko uztailaren 1etik abuztuaren 31ra (biak barne)	2021eko irailaren 1etik aurrera
"Urkabustaiz Musika Eskola Publikoan" emandako jardueren tasak	Hileko kuotak	Hurrengo hilabeteko lehenengo eguna
Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga	2021eko azaroaren 1etik abenduaren 30era (biak barne)	2021eko abenduaren 31tik aurrera

Alkatetzak ahalmena du egutegi hau aldatzeko, baldin eta, behar bezala justifikatutako arrazoi teknikoengatik, adierazitako egunetan aipatutako baliabide ekonomikoak kudeatzea ezinezkoa bada, eta interesdunei behar besteko aurrerapenez horren berri emango die.

Aurreko puntuan adierazitako sarrera-epeetan egin daitezkeen aldaketak Alkatetzak onartuko ditu eta egutegi fiskal hau bezala argitaratuko dira: ALHAOn, eta Udaleko iragarki-taulan.

Bigarrena. Errolda fiskalak, ordaindu beharreko kuotak eta horiek zehazten dituzten zerga-elementuak barne, jendaurrean jarriko dira udal-bulegoetan, ALHAOn iragarri ondoren, jendaurrean jartzeko epean egokitzen diren alegazioak edo erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Hirugarrena. Diru-sarrerak egiteko bideak eta ordainketetarako lekuak:

A) Banku-entitateetan helbideratutako ordainketak: aurreko urteetan ordainketa helbideratuta dutenek ez dute aldaketarik egin beharrik izango, helbideratutako banku-kontua mantentzen badute. Udala arduratuko da ordainketa gauzatzeaz.

B) Banku-entitateetan helbideratu gabeko ordainketak, ordainketa-kartaren bidez:

– Ordainketa-agirian ageri diren erakunde laguntzaileetan.

– Era berean, "nire ordainketa" sistemaren bidez ere egin ahal izango da, udal webguneko izapideen atalean.

Izarran, 2021eko otsailaren 26an

Alkate-presidentea

XABIER ÁLVAREZ DE ARCAJA FERNÁNDEZ DE LANDA